Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2744

AGINDUA, 2011ko apirilaren 20koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Instituto de Investigación Biomédica y Desarrollo Tecnológico (Inbiomed)» fundazioaren estatutu berriak onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertuta geratu da «Fundación Instituto de Investigación Biomédica y Desarrollo Tecnológico (Inbiomed)» fundazioaren estatutuetan egindako aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea eskatzeko espedientea, eta honako hauek hartu dira oinarritzat:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko martxoaren 17an sarrera eman zitzaion Justizia eta Herri Administrazio Sailean, Jorge Ibáñez Villarejo jaunak sinatutako eskari bat. Eskaria Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari egiten zitzaion, fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa inskriba zezan. Eskariarekin batera, eskritura publikoaren bi kopia baimendu aurkeztu ziren. Eskritura, Donostiako notario José Carlos Arnedo Ruiz jaunak (protokolo-3.183) eman zuen, 2010eko abenduaren 22an.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, erabaki-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2744

ORDEN de 20 de abril de 2011, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueban y se inscriben en el Registro de Fundaciones del País Vasco los nuevos Estatutos de la «Fundación Instituto de Investigación Biomédica y Desarrollo Tecnológico (Inbiomed)».

Visto y examinado el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, de la modificación de los Estatutos de la Fundación Instituto de Investigación Biomédica y Desarrollo Tecnológico (Inbiomed), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El 17 de marzo de 2011 tuvo entrada en el Departamento de Justicia y Administración Pública, instancia suscrita por D. Jorge Ibáñez Villarejo, solicitando al Registro de Fundaciones del País Vasco, la inscripción de la modificación de los Estatutos de la Fundación, adjuntándose dos copias autorizadas de la escritura pública otorgada ante el notario de Donostia-San Sebastián, D. José Carlos Arnedo Ruiz el día 22 de diciembre de 2010, bajo su número de protocolo 3.183.

Segundo.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos del Registro de Fundaciones del País Vasco que, a su vista, han elevado propuesta de resolución, atendiendo a los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de modificación de Estatutos de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 3.1 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, el artículo 4.1.a) del Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– Al presente expediente se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos

ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen. Onetsitako estatutu berrien edukiari dagokionez, estatutuak oro har bat datoz lege eta erregelamenduetan araututakoarekin. Batez ere, 12/1994 Legearen 30. eta 35. artikuluek arautu bezala interpretatu eta aplikatu beharko dira, hurrenez hurren, estatutuetako 38. eta 45. artikuluak.

Aipatu artikuluak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Agindu honetan ezarri bezalaxe onartzea Donostiako Fundación Instituto de Investigación Biomédica y Desarrollo Tecnológico (Inbiomed)» fundazioaren estatutu berriak.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutu berriak inskribatzeko agintzea, agindu honen datarekin, Donostian 2010eko abenduaren 22an emandako eskritura publikoan ezarritako moduan. Eskritura publikoa Donostiako notario José Carlos Arnedo Ruiz jaunak (protokolo-3.183) eman zuen.

Hirugarrena.– Fundazioari agindu honen kopia bidaltzea.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 20a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio. En relación con el contenido de los nuevos Estatutos aprobados, éstos se ajustan globalmente, a lo normado por los citados preceptos, legal y reglamentario. Singularmente, los artículos estatutarios 38 y 45 habrán de interpretarse y aplicarse en los términos regulados por los artículos 30 y 35 respectivamente, de la Ley 12/1994, mencionada.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Aprobar en los términos explicitados en el cuerpo de la presente Orden, los nuevos Estatutos de la «Fundación Instituto de Investigación Biomédica y Desarrollo Tecnológico (Inbiomed)», de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

Segundo.– Ordenar la inscripción de los nuevos Estatutos de la Fundación, con la fecha de la presente Orden, de conformidad y en los términos contenidos en la escritura pública otorgada en Donostia-San Sebastián, el 22 de diciembre de 2010, ante el notario de Donostia-San Sebastián, don José Carlos Arnedo Ruiz, bajo su número de su protocolo 3.183.

Tercero.– Remitir a la citada Fundación copia de la presente Orden.

Cuarto.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, 20 de abril de 2011.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.